

## re-ro

**ready-made:** Marcel Duchampek sortutako izena da, kontsumoko objektu aurrefabrikatu edota industrialki produzitutakoak izendatzeko erabiltzen du, artistak arte-obra deklaratzeko baititu kanpotik haien itxura batere aldatu gabe.

Duchampek New Yorken azaldu zituen bere lehenengo ready-made-ak 1913an, beste batzuen artean pixatoki batekin egindako "iturri" ospetsua, eta berebat aulki baten gainean jarritako "bizikleta" eta "botilaxukadera" ere bai, garai hartako arte-munduan hain protesta garrantzak sortu zituztenak. Duchampek bere ready-made horiekin artea errealitate hurbiltzea bilatu nahi zuen, objektu horien bidez errealitatea bera bere izatez errepresentatzea lortzen baitzuen, beraienez, arte-objektu diren aldetik, errealitatearen ispilu izateko beren betiko funtzio tradizionala errebindikatuz. Honekin zedari garrantzitsu bat jarri zuen Duchampek arte modernoaren eboluzioan, ready-made-etatik aurrera artea errealitatearen bereganatze kritiko-kontzientea lortzen saiatu baitzen, errealitate horren kopia faltsu eta izun baten ilusioak alde batera utzita. Aldi berean Duchampek aitorten artistikoa- ren bidez, kontsumoko markatu dien xede dimentsiobakar horretatik askatu egiten dituzte gauzak. Objektuek beren benetako itxura berreskuratzen dute; artea eta gaurkotasuna pareko izatera iristen dira, gauzek, izan ere, bizitzaren barruan sartu eta arte-objektu bihurtuta daudenean, bizitza horrexerren gainean jarrarazten digute atentzia.

**realzeitsystem:** Hans Haacke artista germano-amerikar handiak egiten zuen arte-lana izendatzeko sortu zuen realzeitsystem izena, eta horrekin errealitatearekiko erreferentzia eta bere artearen izaera prozesuala jarri nahi zituen agerian.

Haacke batez ere "Zero" taldearekin ibili zen lankidetzan estuan, eta hirurogeita hamarrekotean bere lanak biluztu egin zituen eduki emozionala edozein ukitu apaingarri hutsetik, eta bere sistema fisiko, biologiko eta sozialetan beren baitan itxiatu baldintzatzaile-sistema konplexuak modelikoki azaltzera bakarrik mugatu zen, berak errealitatean aurkitzen baititu

kausazko araudi bezala. Realzeitsystem-aren lan hau kondentsazio-kaxa fisiko sinple batzuekin hasten zen, eta kaxa horietan Haackek ikusteko moduan erakusten zuen uraren egoera fisikoa etengabe aldatzen dela, beti ere, giroan ematen diren tenperatura-baldintza jakin batzuen arabera. Sistema prozesual itxi baten isolamendu prototipiko hau eremu biologikora lekualdatzen zuen ondoren. Haackek Torontoko museoan azaldu zuen (1969), adibidez, txitoen inkubazio-prozesua eta txitoen hazkuntzan izaten diren desberdintasunak, inkubagailuan txitoak txanda desberdinetan ateratzen zirelako. 1969tik aurrera Haackek testuinguru sozio-funtzionala aldatu zuen realzeitsystem hau eta elkarren artean eragina izaten duten hainbat efektu jarri zituen agerian, Manhattaneko barruti newyorktarraren eraikin-profilaren eta bertan nagusi zeuden lurzorua jabetzako ezaugarrien gorabeheren artekoak adibidez. Baldintzatzaile konplexu bakoitzaren problema desberdintzeko eta zehazki egituratzeko, gainera, informazio-metodika batez baliatzen da, ikerketa zientifikoa ematen duenaren tankerako batez.

Eredu sistematik horiekin, errealitatearen aurkezpena eta errealitate horren finkapen intelektibo eta funtzionala askatzen saiatzen da artea, errealitatearen segmentuek hurrenez hurren arlo fisikoan, biologikoan eta sozialean izaten duten konplexutasuna erreferentziaz hartuz.

**reihung (seriean jartzea):** Zatiki plastiko berdinar seriean jartzeko muntaketa-printzipioa da; Gertrude Steinek (a rose is a rose is a rose...) eta Kurt Schwitters-ek (Wand poema) egindako adibide literario batzuen ondoren, 1962tik aurrera Andy Warhol pop artistak erabili izan zuen bere koadro eta filmeetan, eta Timm Ulrichs, Manzoni, Arman-ek (plexiglasako ontzietan objektu berdinar metatuz egindako Reihung = pilaketa) eta Peter Roehr-ek ere bai. Azkeneko honek Reihung-a hartu zuen printzipio konfiguratzaile bakar bezala letra, hitz, hitz-zati, objektu eta fotografiak seriean jarriz egindako bere muntaketa-lanetan. Bere azkeneko lanetan seriearen printzipioa

eraman du bere muntaketa filmiko eta hotsezkoetara ere, lan horietan oinarritzko motiboak irrati, pelikula, publizitate-spot edota astekari eta albistegieta hartzen baititu.

**rollenbild (konposizio jarraitua edo erroiluan egindakoa):** Europatik Mundu Berrira emigratu ondoren, Hans Richter dadaistak bere Rollenbild izenekoak garatu zuen, kollage abstraktuen segidako lan-sail batekin egindako lana. "Erroiluaren" elementuetako bakoitzean txandakatu egiten dira forma geometriko garbiak eta aldizkari-etako testu ilustratuak, eta hala, koadroaren egituraketa dialektiko honen konposiziotik mugimendu eta denborazko dokumentazio efektibo bat sortzen da, abstraktua bere multzoan. Hans Richter-en arte-lanetan, hogeiko urteetan jadanik Rollenfilm deitutakoarekin hasia zegoen printzipio konfiguratzaile bati heltzen zaio berriz ere Rollenbild-arekin era berritzaile batean.

**rollenfilm:** Zuricheko dadaren garaian sartu zuten artean lehenengo aldiz filmea baliabide bezala Hans Richter artista alemanak eta Viking Eggeling suediarrek (1919-1924), hain zuzen Rollenfilm moduan, alegia irudi mugikorrez egindako filme abstraktu moduan. Hauetan elkarrekin konbinatzen dira benetako harraldiak eta forma abstraktuak, eta material hori muntatzen da ez, ohizkoa den bezala, edukizko motibazioen arabera, erritmo-motibazioei jarraituz baizik. Richter eta Eggeling bere filmearen lanketa horretan saiatzen dira —hemen ere lehenengo aldiz— ekintzako tematika batekin zeri-kusirik ez duen konposizio-araudi abstraktu eta musikal bat lortzen.

**rotoerliebea:** Disko zinetiko batzuk dira, beren gainazalekin, jiraterakoan, argi-efektu desberdinak sortzen dituztenak; ondorioz, diskoaren itxura optikoa erritmikoki aldatzen joaten da jiroaren abiada handiagoaren edo txikiagoaren arabera. Aurreneko rotoerliebeak Marcel Duchampek egin zituen 1935ean jadanik, eta handik aurrera zinetikak tresna motore asko asmatu izan ditu (adibidez Heinz Mack-ek) rotoerliebeen printzipio hori erabiltzen dutenak. ■